

Gerra eta bakea

Gerratik ihesi Austriatik etorri ziren haurrak Iruñean dira berriro

PETER HOCHHOLZER gazte-gaztea zen Iruñera lehenengo aldiz etorri zenean, eta orain, 50 urte geroago, berriro etortzean pozik eta aldi berean triste sentitzen dela dio. Garai haietan, Europako hainbat haurrek bezala, bere herritik alde egin behar izan zuen, eta Austriatik Iruñeraino heldu zen. 1949 eta 1950 urteetan egon zen Iruñeko familia batean bizitzen, eta orain haurtzaroko oroitzapen gehienak Iruñekoak direla dio.

“Austriako haurtzaroaz bi gauza besterik ez ditut gogoratzen: bonbak eta etxeetako sotoak”. Bere aita gerra horretan hil zen, eta hona etortzean beste aita bat izan zuela dio. “Garai hori gogoratzeak tristetzen nau, baina nik lagun asko ditut hemen, eta askotan etortzen naiz; horrek pozten nau”.

Graciella Klimentek zortzi urte zituen 1948. urtean Iruñera lehenengo aldiz etorri behar izan zenean; eta hemen bederatzi hilabetez egon ondoren, bere herrira itzuli eta alemanieraz hitz egitea izugarri kostatzen zitzaioela dio. Castellot familiak hartu zuen orduan, eta oraindik ere Iruñera datorrenean bere etxean sentitzen dela dio. Atzo Iruñera heldu ziren

60 austriarrek oso gogoan dute atzerrian pasatu zuten haurtzaroko aldi hura.

Elkartze taldea

II. Mundu Gerra amaitzeaz zegoela, hainbat haurrek Austriatik alde egin behar izan zuten, eta Iruñetik pasatu ziren asko. Gerra amaituta, euren herrietara itzuli ziren gehienak, eta 1979an, lehen abegi egin zieten familiekin harremana man-

tendu eta bultzatzeko Elkartze taldea osatu zuten.

Iruñeko udaletxean harrera egin zien atzo alkateak. Bertan, Elkartze taldeko presidente Waltraud Branstetterek 1949. urteko Iruñea gogoratu zuen, eta haien herriaren ikur adierazgarriena oparitu zion alkateari: kristalean grabaturiko bibolina. Hemen hainbat denbora egon ziren arren, askok gaztelania ahaztu dute dagoeneko, baina El-



INAKI VERGARA



INAKI VERGARA

Duela 50 urte gerratik ihesi Iruñera etorritako austriarrak Nafarroako hiriburuan dira berriro.

kartze taldean hizkuntza lantzen saiatzen direla diote.

Austriako haurrak bere herrian baleude bezala ibili ziren Iruñean. Arratsaldean erraldoien konpartsa kaletik ibiltzekoa zela jakin zutenean, non izanen zen galdezka hasi ziren, Iruñean egon ziren bitartean sanferminak ezagutu baitzituzten... eta gogoratu egin nahi.

Miren Iriarte

IRUÑEA

